

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

EKOLOGIA

Lurra hezeago bihurtzen ari da giza jarduerarengatik

LURRA BEROTU AHALA, atmosferak hezetasuna gordetzeko duen ahalmena handitu egiten da. Ozeanoen gainean dagoen ur-lurrin kantitatea asko handitu da, batez ere 1980. urtetik aurrera. Hazkunde hori ezin da azaldu besterik gabe arrazoi naturalak argudiatuz; horregatik AEBtako, Erresuma Batuko, Alemaniako eta Japoniako zientzialari talde batek horren zergatiak ikerketa abiatu zuen.

Batetik klima-sistema simulatzen dituzten 22 eredu informatiko erabili zituzten, bestetik satelite batean koka-



Ur-lurrina nonahi ageri da satelite bidezko irudi honetan. Azpian gure planeta omen dago.

Osasuna

JABIER AGIRRE

40 urteko emakumeentzako mamografia eske



Gaur egun 50 urtetik aurrera egiten dira mamografiak.

BIZKAIKO BULARREKO MINBIZIAREN ELKARTEAK (ACAMBI) eskaera bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean urriaren amaieran. Osakidetza mamografia egiteko adin tartea zabaltzeko premia aldarrikatu zuen ACAMBIk, probak 40 urtetik gorako emakumeei egitea eskatuz. Muga 50 urtetan dago egun.

ACAMBI elkartearen ordezkariak —eta María José Acayak, elkartearen lehendakariak—, osasun gaiez arduratzen den batzordearen aurrean egindako agerraldian, gogor kritikatu zuten orain sei hilabete alderdi politiko batek egindako eskaerak jaso zuen ezezkoa.

Acayak gogoratu zuenez, bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan 45 urtetik gorako emakumeak sartzea eskatzen duen osasun-egitasmoaren helburu nagusia bularreko minbiziaren eragindako heriotza-tasa gutxitzea da. Ez da ahaztu behar kasuen %30a 50 urtez azpiko emakumeei diagnostikatzen zaiela. Eta, Inclin sailburuak berak

esan bezala, minbizia da 30-44 urte bitarteko emakumeen artean heriotza kausarik usuena. Kontuak kontu, Gasteizko Legebiltzarrak uko egin zion adin tartea zabaltzeari. Erabakia sustengatu zuten alderdien ustez ez dago oinarri zientifikorik neurri hori onuragarria dela esateko.

Urteak daramatza ACAMBI elkarteak adin tartea goitik zein behetik zabaltzeko eskatzen. Hala, eta orain urtebete Osakidetza berak mamografiak egiteko gehieneko adinaren muga 65etik 70 urtera zabaltzea erabaki zuen bezala, gutxienean adina ere zabaltzea behar-beharrezkoa da elkartearen iritziz. 2005. urtean 64tik gorako eta 50etik beherako emakumeen artean diagnostikatutako bularreko minbizi kopuruak antzekoak izan ziren arren —314 aurreneko adinean, eta 278 bigarrenen—, talde batean eta bestean oso desberdinak dira gaixotasunaren ondorioak, gizartearen, lanaren, familiaren nahiz ekonomiaren ikuspuntutik. Baita alderdi emozionalari eta bizi-itxaropenari dagokienez ere.

Adituek era horretako mamografiak 40 urtetik aurrera egitea gomendatzen dute azken urteotan. Izan ere, "positibo faltsuak aurkitzea baino askoz ere okerragoa da egiazko positiboak albo batera utzi edo ez antzema-tea", Acayaren esanetan.

landareak

tuta zegoen SSM/L izeneko sentsorearen neurketak. Ondorio nagusia zera da: hezetasuna handitzearen arrazoia ez da eguzki-irradiazioa handitu dela edota 1991. urtean Pinatubo sumendiak izandako eztanda izugarria, baizik eta erregai fosilen errekontzagatik isuritako karbono dioxidoa.

Horrela, karbono dioxidoak berotegi efektuan dituen erantzukizunei beste bat gehitu behar zaio, hots, ur-lurrina sortzea, horrek ere berotegi efektua areagotzen baitu.

Egindako behaketen arabera, atmosfera berotzen den gradu bakoitzeko ur-lurrin kantitatea %7 inguru hazten da. Bestalde, ikerketak ez dio ondoko galderari erantzun: ur-lurrin gehiago egoteak euri gehiago egitea eragin al dezake?

BERRIKUNTZA

Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana abian jarri du Eusko Jaurlaritzak

JUAN JOSE IBARRETXE lehendakariak berriki iragarri du, Euskalduna Jauregian, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana. Plan horretan hainbat ekintza garatuko dira, baina hemen dagoeneko indarrean daudenetatik interesgarrien deritzogunak aipatuko ditugu.

Batetik, enpresek berrikuntza-agendak osatzea bultzatzen da. Horretarako aholkulari multzo bat jarriko da enpresen esku, doan edo ia doan.

Bestetik, aipatu agendetan zehaztutako ekintzak burutzeko "Aldatu" programa zabaldu da. Horren bidez hainbat ekintza finantzatu daitezke. Proiektu bakoitzaren aurrekontuaren %50era iritsi daitezke diru-laguntzak.

Zabaldutako programa horiek 2009. urtera artekoak dira oraingoz, eta administrazioetik ematen diren diru-laguntzekin alderatuz jauzi kualitatiboa ekarriko dute. Diru-laguntza berriak eskuratu ahal izateko, enpresek epe ertain eta luzera begira jardun beharko dute.

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Gorritea

DATOZEN BI ILBEHERATAN lurperatu behar dira baraxuri begiak. Lan horietan aritzen den edonorentzat *erein* litzatekeena, mizto zorrotzen ahotan *landatu* esan behar da, ugalketarako hazirik ez baita erabiltzen, landarearen zati bat, begia, baizik. Begiak lurperatzen eta ezin ba ikusi! Baldin eta gero luze jasotzeko bada. Azaroko edo abenduko ilbeheran landatu. Zuria bezala gorria.

Luze baino sekulako jasotako gorriei bueltaka aritu naiz ingurukoekin azken hilabete honetan. Sagardo sagarretaz, fruitu kozkor gorrietan gozatzen diren zuhaiska zakarretaz, udazkeneroko landareen azpikogonen erakusketaz... Aurtengo gorriak ez ditut inoizko inongo artxibotan jasoak, sekulako disko gogorrean.

Sagarretan, beti heltze-bide berde-hori-laru soila egiten duten bariatateak –bi urtebiak, urtebetea, txalaka, gezamina...– muxu-gorriak azaldu dira aurtengoan, baten bat ezezagutze bidean nahasteraino ere...

Hostoak dira, hala ere, aurtengo gorriaren modan pertxentanak; udazkenaren erakuslehoan muturreko galanta hartuta atzera egin beharrean izan dira aurtur horizontaleak. Kontzertua zuten aurreragoko batean

Gorri-festa dakar aurtengo larrazkenak.



gorrikoteek eki-ekienean eta han ikusi genituen zuhandor harroak, ezpel hilezkorak, arkakarats amonak, astigar frantses-muturrak, norteko haritz amerikanoak, gereziendo finak, elorri beltz beltzak, lertxun firinak eta sagar makatzak. Inguruetakoz kokor gorrien usainak benetakoa zenaren berniza ematen zion hostoen kontzertuari, gurbitz sendoarenak, gorosti tentearenak, zuhandor ahantziarenak, otso-lizar ustetsuarenak, galzoriko hostazuriarenak...

–Zer dela eta ba aurtur inoizko gorritea?

–Hozberoa gora behera...

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industrialdea 1, 20186 Lezarte-Oria
Tel. 941.37.16.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA